

Euskal koherentzia Jaurlaritzan

Argia, 1991-02-17.

Aukera honek lasaitu du Euskal Herria.

Eusko Jaurlaritzak, Autonomiaren lorpenetan sartuta dauden hiru lurraldeak, bi aukera nabarmen zituen: bat, joan diren lau urteko gobernua errepikatu, PSOEko PS barruan duela, edo, bi, abertzaleak diren EAJ/PNV, EA eta EEren artean burutu gobernua.

Koherentzia eta etika politikoa zeuden jokoan.

Orain lau urte gertatutakoa, ulerterraza da: EAJk ez zuen, zatiketa ondoren, PSOE-PSrekin joateko beste aukerarik, eta lortu zuen behintzat Lehendakaritza abertzalea gordetzea. Gaur egun, ordea, EAJk boto bidez lortu duen nagusitasunarekin PSOE-PSrekin beste lau urterako Jaurlaritza berretzea, golpe handia izango zen eusko abertzaletasunarentzat.

Etorkizun zaila izan zezakeen EAJko hori egin izan balu.

EAJ-ko basea, abertzalea da.

Beraz, orain Jaurlaritza abertzale bat, PSOE-PSko partaide nazionalista espainolarekin egitea, ez zen zilegi aukera koherentea. Bestalde, EAJ, EA eta EEk elkar hartuta frentista ez den Jaurlaritza Abertzale bat sortzea zen zentzuzkoa. Hemen kontuan eduki behar da, eta eskertu, bai Garaikoetxea eta baita Arzallusek ere gauzak erantzukizun handiz egin dituztela.

Egia da hemen, HB, abertzalea, baina Estatuto legalaren kritiko erradikala, kanpoan geratu dela.

Nik itxaropena badut, indar abertzale honek, gauza askotatik pasa eta gero, egingo duela ahalegin handi bat gaur ditugun instituzioetan partaide oso bezala sartu eta leialki eraikuntza zabalean lanean jartzeko, eta hauen bitartez ETAk datozen bi urte hauetan herriaganako erantzukizunarekin pake egoki eta iraunkorra lortzeko.

Datozen lau urteetan Euskal Herriak: batetik, Ifarraldeak Estatutu bat bereganatuz; bestetik, Nafarroarekin hurbiltasun berezi bat lortuz, eta gero European gure Autodeterminazio justu bat demokratikoki gureganatzeko egiazko borondate politikoa jarriaz.

Hau ametsa izango da, agian, baina ez da modelo txarra egiatan pentsatzen hasteko.